Desde Debarren Ahotsa hemos trabajado de forma activa en la elaboración de estos presupuestos aportando ideas e incorporando partidas para el desarrollo económico y social del pueblo de Deba, siendo las más significativas, por ejemplo, la renovación del paseo de la playa, la ludoteca, el estudio sobre nuevos aparcamientos y la posibilidad de relanzar el proyecto de Osio.

Horregatik guztiagatik, baiezkoa emango diegu aurrekontuei, baina kontuan hartu beharreko hainbat alderdi garrantzitsu helarazi nahiko genituzke.

Por todo ello, vamos a dar el sí a estos presupuestos si bien nos gustaría trasladar varios aspectos importantes a tener en cuenta.

Aurrekontuen prozesua ez da nahi bezain parte-hartzailea izan. Ogasun Batzordean gogor egin da lan, baina ez hainbeste beste batzordeetan, eta batzuetan ia ez da aztertu ere egin. Iradokitzen dugu, hasieran, proposamenak batzordeetan berrikusi behar direla, eta, ondoren, Ogasun Batzordeari helarazi.

El proceso de los presupuestos no ha sido tan participativo como se hubiera deseado. Se ha trabajado intensamente desde la Comisión de Hacienda, pero no tanto en las diferentes comisiones, e incluso en algunas prácticamente ni se ha tratado. Sugerimos que se deben revisar, en el principio, las diferentes propuestas en las comisiones y posteriormente trasladarlas a la Comisión de Hacienda.

Ikusten ari gara ahalegin nagusiak batez ere euskara, kultura, gizarte-zerbitzuak eta partaidetza arloetan egiten direla, eta oso garrantzitsutzat jotzen baditugu ere, ez dira gutxiago pertsonal- eta hirigintza-arloak, eta, zehazki, etxebizitzaren egoera, eta, beraz,

Estamos viendo que los principales esfuerzos se centran sobre todo en las áreas de euskera, cultura, servicios sociales y participación, que si bien las consideramos muy importantes, no lo son menos las áreas de personal y urbanismo, y en concreto, la

horiek ere bultzatu beharko lirateke.

situación de la vivienda, y por tanto, se debería igualmente impulsarlas.

Gaur egun, egoera onean gaude baliabide ekonomiko eta pertsonalei dagokienez; beraz, uste dugu egutegi bat ezarri behar dela 2021etik datozen proiektuak eta 2022rako ezarritakoak gauzatu ahal izateko, horren mende baitago Deba eta Itziarko herriaren garapena

Actualmente nos encontramos en una buena situación en cuanto a recursos, tanto económicos como de personal, por lo que consideramos que se debe establecer un calendario para poder ejecutar los proyectos que vienen de 2021 y los establecidos para 2022 ya que de ello depende el desarrollo del pueblo de Deba e Itziar.

**Itziar Irizar:** Zurea da hitza Iñigo.

**Itziar Irizar:** Iñigo, tienes la palabra.

**Iñigo Cambronero:** Arratsaldeon. EAJ-PNV taldetik, aurrez esan dugun bezala, aurrekontu hauen prestaketan parte hartu dugu, negoziazio-fasean gure proposamenak egin ditugu, baina horiek indartzeko eta arlo estrategiko batzuetan lan egiteko asmoarekin, Udalaren kontu orokorrak indartu ditzaketela uste baitugu. Ikusten dugu gobernu-taldeak arlo horietan lan egiteko borondatea duela, baina ez dugu ikusten, askotan, lerro zehatz batzuetako aurrekontu-partidatan islatuta dagoenik. Horregatik, gu abstenitu egingo gara, ez da aurrekontuen aurkako botoa izango, oro har bat gatozelako, baina bai aurrekontuak proposamen horiekin indartzeko ahalegina egin dugulako. Ez dugu aldeko botorik emango, ezta kontrakorik ere; abstenitu egingo gara, hori aurrera joan dadin eta modu ordenatuan gauzatu ahal izan dezagun, eta dei eginez, egin dizkizuegun proposamenetan lan egiteko borondate horri.

**Iñigo Cambronero:** Arratsalde on. Desde el grupo EAJ-PNV, como hemos comentado anteriormente, hemos participado en la elaboración de estos presupuestos, hemos hecho nuestras propuestas en la fase de negociación, pero con la intención de fortalecerlos y trabajar en unas áreas estratégicas que pensamos que podrían reforzar las cuentas generales del Ayuntamiento. Vemos voluntad del equipo de gobierno de trabajar en esas áreas, pero no vemos reflejo, muchas veces, en unas líneas concretas de partidas en el presupuesto. Por esa razón, nosotras nos vamos a abstener, no va a ser un voto en contra de los presupuestos porque en líneas generales lo compartimos, pero sí que hemos hecho el esfuerzo de reforzar los presupuestos con esas propuestas. Tampoco vamos a dar el voto favorable ni el contrario, nos vamos a abstener con la intención de que esto vaya adelante y podamos ejecutarlo de manera ordenada y llamando a esa voluntad de trabajar en las propuestas que os hemos formulado.

**Itziar Irizar:** Oso ondo. Eskerrik asko bioi eta zuen ekarpenak ere jasota gelditzen dira eta hurrengo baterako kontutan hartuko ditugu baita ere

**Itziar Irizar:** Muy bien. Gracias a los dos. Vuestras aportaciones quedan recogidas y las tendremos en cuenta para el futuro.

Bozkatu egingo dugu orduan. Aldeko bozkak? Isidor eta Ane baita ere. Orduan bederatzi boto alde.

Entonces votaremos. ¿Votos a favor? Isidor y Ane también. Entonces nueve votos a favor.

Abstentzioak? Hiru.

¿Abstenciones? Tres

Orduan ez daude kontrako bozkak.

Por lo tanto, no hay votos en contra.

Onartuta gelditzen dira 2022ko aurrekontuak, eta urtarrilean aurrekontuak onartuta

Quedan aprobados los presupuestos de 2022, y tener aprobados los presupuestos en

edukitzeak lagunduko digu plangintza eta egutegia antolatzen urte hasieratik eta ea hurrengo urtetan horrela jarraitzen dugun.

enero nos ayudará a organizar la planificación y el calendario desde principios de año y a ver si seguimos así en los próximos años

Udalbatzak, aldeko bederatzi botoekin eta hiru abstentzioekin onartzen du 2022rako aurrekontu orokorra.

El Pleno, con nueve votos a favor y tres abstenciones, aprueba el presupuesto general para 2022.

**5.- 2021EKO ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO PROIEKTUAK, LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK DIRUZ LAGUNTZEN DITUENAK GAUZATZEKO ELGOIBARKO, SORALUZEKO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN BURUTZEN DEN GESTIOA DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA SINATZEA, HALA BADAGOKIO**.

5.- SUSCRIBIR, SI PROCEDE, EL CONVENIO DE ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL 2021 ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE ELGOIBAR, SORALUZE, MENDARO, DEBA Y MUTRIKU PARA LA EJECUCIÓN DE LOS PROYECTOS DE IMPULSO DEL EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL SUBVENCIONADOS POR LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, AL ÁMBITO TERRITORIAL DE DEBABABARRENA.

**Itziar Irizar:** Aritz, zurea da hitza.

Itziar Irizar: Aritz, tienes la palabra

**Aritz Larrañaga:** Hau da urtero sinatzen dugun hitzarmen bat enplegu plana kudeatzeko, Eusko Jaurlaritzatik horrela izan behar dela esaten dute, eta hitzarmen honen bidez enplegu planaren kudeaketa Elgoibarko Udalaren esku uzten da, eurek egiten ohi dutelako.

Aritz Larragaña: Este es un convenio que firmamos todos los años para gestionar el plan de empleo, desde el Gobierno Vasco dicen que tiene que ser así, y a través de este convenio se delega la gestión del plan de empleo en el Ayuntamiento de Elgoibar que son quienes lo hacen habitualmente.

**Itziar Irizar:** Zerbait adierazi nahi duzue?

Itziar Irizar: ¿Queréis exponer algo?

**Pedro Bengoetxea:** Gizarte Politikako Batzordean gure postura azaldu genuen, eta guk onartuko dugu.

Pedro Bengoetxea: En la Comisión de Política Social ya manifestamos nuestra postura, y lo aprobaremos.

**Itziar Irizar:** Iñigo?

Itziar Irizar: ¿Iñigo?

**Iñigo Cambronero:** Ez dugu ezer gehitzerik.

Iñigo Cambronero: No tenemos nada que añadir.

**Itziar Irizar:** Bozkatu egingo dugu orduan. Aldeko bozkak? Aho batez.

Itziar Irizar: Entonces procedemos a votar. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

Udalbatzak, aho batez onartzen du 2021eko enplegua eta tokiko garapena sustatzeko proiektuak garatzeko hitzarmena.

El Pleno, por unanimidad, aprueba el convenio para el desarrollo de los proyectos de fomento del empleo y desarrollo local de

año 2021.

Hitzarmenaren testua akta honen eranskinean jasotzen da.

El texto del convenio se adjunta como anexo a la presente acta.

**6.- EUKALIPTO LANDAKETEN MORATORIA MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

6.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MOCIÓN DE MORATORIA DE LAS PLANTACIONES DE EUCALIPTO.

**Itziar Irizar**: Nerea, zurea da hitza.

**Nerea Arrizabalaga:** Dokumentua irakurtzen du.

**Itziar Irizar**: Nerea, tienes la palabra.

**Nerea Arrizabalaga:** Procede a leer el documento.

***MOZIOA: EUKALIPTO LANDAKETEN MORATORIA***

***JUSTIFIKAZIOA***

***Gipuzkoan, azken hiruzpalau urteotan, Pinus insignisaren gaixotasunak direla medio, zuhaitz-landaketa eremu zabalak moztu dira eta mozten ari dira epe motzean, horrek ingurumenean dakartzan ondorio kaltegarriekin. Pinu-landaketak mozteagatik diru-laguntzak jaso nahi badira, Aldundiak landaketa berriak egitera behartzen ditu jabeak, eta asko eta asko landaketa berriak egiteko espezieak aukeratzen ari dira. Egurraren sektorearen interesei jarraiki, espezie horien artean pinu espezie ezberdinez gain, Eucalyptus globulus eta Eucalyptus nitens lehenesten ari dira hainbat.***

***Izan ere, eukaliptoak hazkuntza azkarrekoak dira: lehen mozketa 16 urtera izaten dute, eta, birsortze ahalmenari esker, bigarren eta hirugarren mozketak 20 urteko mugan burutzen dira. Baina, 2017ko abenduaren 1ean Espainiako Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoaren Batzorde Zientifikoak jaulkitako txosten batean, Eucalyptus zuhaitzaren barietate guztiak "izaera inbaditzailea" adierazita aho batez gomendatu zuten "baso-ustiapenerakoak diren eukalipto espezie guztiak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan biltzea, espezie horiek inbaditzeko arrisku handia dakartelako, euren ezaugarri biologiko, fisiologiko eta ekologikoaren ondorioz".***

***Honekin batera Batzordeak bere txostenean "sarrera eta landaketa berriekin kontu handiz***

*MOCIÓN: MORATORIA DE PLANTACIONES DE EUCALIPTO*

*JUSTIFICACIÓN*

*En Gipuzkoa, durante los últimos tres o cuatro años, debido a las enfermedades de Pinus insignis, se han cortado y se están cortando en el corto plazo amplias zonas de plantación arbórea, con las consecuencias negativas que ello conlleva para el medio ambiente. Si se quieren subvencionar las cortas de pinos, la Diputación obliga a los propietarios y propietarias a realizar nuevas plantaciones, y muchas están eligiendo especies para nuevas plantaciones. Atendiendo a los intereses del sector de la madera, entre estas especies, además de las diferentes especies de pino, están siendo priorizadas las especies Eucalyptus globulus y Eucalyptus nitens.*

*De hecho, los eucaliptos son de crecimiento rápido, con una primera corta a los 16 años, y gracias a la capacidad de regeneración, los segundos y terceros cortes se ejecutan en un límite de 20 años. Sin embargo, en un informe emitido el 1 de diciembre de 2017 por el Comité Científico del Catálogo Español de Especies Exóticas Invasoras, se recomendó unánimemente la inclusión en el Catálogo Español de Especies Exóticas Invasoras de todas las especies de eucalipto de aprovechamiento forestal, Ya que estas especies presentan un alto riesgo de invasión debido a sus características biológicas, fisiológicas y ecológicas.*

*Junto a ello, la Comisión recomendaba en su informe que "se extremaran las precauciones*

*ibiltzea" gomendatzen zuen, eta era berean "desagerrarazteko neurriak ezartzea inbasioa gertatu baino lehen, gure lurraldean edozein Eucalyptus espeziearen naturalizazioa ikusten denean". Estatuko Gobernuak ez du izendapen hori indarrean jarri eukaliptoek interes ekonomikoa dutelako, eta, hori argudiatuz, espezie inbaditzailearen izendapena geldiarazi daitekeelako. Baina, ikuspegi zientifikotik ez da jartzen auzitan, inolaz ere, espezie horren izaera inbaditzailea.*

*con las nuevas entradas y plantaciones", al tiempo que se" establecieran medidas para su erradicación antes de la invasión, cuando se observe la naturalización de cualquier Eucalyptus en nuestro territorio". El Gobierno del Estado no ha puesto en vigor esta declaración por el interés económico de los eucaliptos, lo que puede justificar la paralización de la designación de la especie invasora. Sin embargo, desde el punto de vista científico, en modo alguno se cuestiona el carácter invasor de esta especie.*

*Berriki, 2020ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren agindura, EHU eta Aranzadi zientzia-elkartearen arteko elkarlanean aztertu dituzte eukalipto landaketak EAEn eragiten dituzten ingurumen-kalteak ("Eukalipto landaketen ingurumen eragina. A. Elosegi, J.Arizaga, C. Cabido eta A. Larrañaga). Txostenaren emaitzek ez dute zalantzarik uzten: eukaliptoen eragina kaltegarria da ingurumenerako, eukalipto-landaketen hedatzea kaltegarria litzateke lurzoru eta hidrologiarentzat, baita biodibertsitatearentzat ere.*

*Recientemente, en enero de 2020, siguiendo el mandato de la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, la UPV/EHU y la Sociedad de Ciencias Aranzadi han analizado los impactos ambientales de la plantación de eucalipto en la CAPV (El impacto ambiental de la plantación de Eucalipto. A. Elosegi, J.Arizaga, C. Cabido y A. Larrañaga). Los resultados del informe no dejan lugar a dudas: el efecto de los eucaliptos es perjudicial para el medio ambiente, la expansión de las plantaciones de eucaliptos sería perjudicial para el suelo y la hidrología, así como para la biodiversidad.*

*Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du "Espezie Exotiko Inbaditzaileen katalogoak eratzeko, haiek desagerrarazteko beharrezkotzat jotzen diren debeku eta ekintza osagarriak ezarriz". Beraz, lehenbailehen izendapen hau egin eta espezie honen landaketaren debekua ezarriko duen legedia garatzea lehentasunezko eginkizuna dela pentsa daiteke.*

*De conformidad con lo establecido en el artículo 64 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, la Comunidad Autónoma del País Vasco es competente para la "elaboración de catálogos de Especies Exóticas Invasoras, estableciendo las prohibiciones y acciones complementarias que se consideren necesarias para su erradicación". Por lo tanto, se puede considerar una tarea prioritaria el desarrollo de una legislación que haga esta designación a la mayor brevedad posible y establezca la prohibición de la plantación de esta especie.*

*Bitartean, eta aurreko guztia kontuak izanik,*

*Entretanto, y teniendo en cuenta todo lo*

*honako mozio hau formulatzen da:*

*1.- EAEko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak dion moduan, mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea. Udalerriko eskumen propioak direlako eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak udalerri bakoitza herriko ingurumena era egokienean mantentzeko neurriak hartzea ahalbidetzen duelako. Hau kontuan izanik, Euskal Autonomia Erkidegoak "Espezie Exotiko Inbaditzaileen katalogoak" eratu arte eta espezie hauek desagerrarazteko beharrezkotzat jotzen diren debeku eta ekintza osagarriak ezarri arte,* ***Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak herriko baso-ustiapenetan Eucalyptus espezieak landatzeko baimen eskariei luzamendua (moratoria) ezarriko die.***

*2.- Kontuan izanik EAEko basoetan eta baso-lurretan Eukaliptoak duen presentziak lur hau bioaniztasuna, produktibitatea, birsortzeko ahalmena, bizitasuna eta gaur egun eta etorkizunean izan behar dituen gizarte eta funtzio ekologikoak kolokan ipintzen dituela,* ***Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete ahalik eta lasterren ireki dezala Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa*** *eta berehala ireki dezala Eucalyptus espezie desberdinak bertan sartzeko administrazio prozedura.*

*3.- Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren Osoko Bilkurek foru aldundiei eskatzen die baso-politikak alda ditzatela beren lurraldeetan eukalipto eta espezie inbaditzaile kontsideraturik daudenak gehiago landatu ez daitezen, eta titulartasun publikoko zein pribatuetako mendietan egun dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua planifika dezaten.*

Hiru puntu horiek dira moratoriaren eskaria

**Itziar Irizar**: Zerbait aipatu nahi duzue?

*anterior, se formula la siguiente moción:*

*1.- Realizar la ordenación, gestión y vigilancia de las actividades y usos que se realicen en los montes, tal y como establece la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi. Son competencias propias del municipio y la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo permite que cada municipio adopte las medidas necesarias para mantener el medio ambiente local de la forma más adecuada. Teniendo en cuenta lo anterior, hasta que la Comunidad Autónoma del País Vasco proceda a la creación de los Catálogos de Especies Exóticas Invasoras y se establezcan las prohibiciones y acciones complementarias que se consideren necesarias para la erradicación de estas especies,* ***el Ayuntamiento de Deba y la Entidad Local Menor de Itziar impondrán la moratoria a las solicitudes de autorización para la plantación de Eucalyptus en explotaciones forestales de la localidad****.*

*2.- Teniendo en cuenta que la presencia de Eucalipto en los bosques y tierras forestales de la CAPV pone en cuestión la biodiversidad, la productividad, la capacidad de regeneración, la vitalidad y las funciones ecológicas y sociales que debe tener en la actualidad y en el futuro,* ***el Ayuntamiento de Deba y la Entidad Local Menor de Itziar instan al Gobierno Vasco a que, a la mayor brevedad posible, proceda a la apertura del Catálogo Vasco de Especies Exóticas Invasoras*** *y a la inmediata apertura del procedimiento administrativo para la inclusión de las diferentes especies Eucalyptus.*

*3.- Los Plenos del Ayuntamiento de Deba y de la Entidad Local Menor de Itziar instan a las diputaciones forales a modificar las políticas forestales para evitar el incremento de plantaciones de eucaliptos y especies consideradas invasoras en sus territorios y a planificar la sustitución ordenada de las actuales plantaciones de eucalipto en los montes de titularidad pública y privada.*

Estos tres puntos son la petición de moratoria

**Itziar Irizar**: ¿Queréis comentar algo?

**Pedro Bengoetxea:** Ez

**Itziar Irizar:** Zuek, Iñigo?

**Iñigo Cambronero:** Guk aldeko botoa emango dugu, baina zehaztapen bat egin nahi dugu, eta eskatu nahi dugu Debako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baso-politikak bere eginez, eukaliptoaren ordezko ustiategiei ere lehentasuna ematea, Aldundiarekin adostutako bultzate- eta sustapen-neurriekin.

**Itziar Irizar**: Oso ondo, eskerrik asko. Bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du «Eukalipto landaketen moratoria mozioa».

**Pedro Bengoetxea**: No

**Itziar Irizar**: ¿Vosotros, Iñigo?

**Iñigo Cambronero**: Nosotros vamos a votar a favor, pero queremos hacer una puntualización, y queremos pedir que desde el Ayuntamiento de Deba, haciendo suyas las políticas forestales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, priorice también las explotaciones alternativas al eucalipto con medidas incentivadoras y de fomento consensuadas con la Diputación.

**Itziar Irizar**: Muy bien. Muchas gracias. Procedemos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba la moción de «Moratoria de las plantaciones de eucalipto».

## 7.- ESKARI ETA GALDERAK.

**Itziar Irizar**: Osoko bilkuraren azken puntua eskari eta galderak da. Aurreko bileratan egin ohi dugun bezala, lehenbizi aipatu zein eskari edo galderak dituzuen, eta ondoren erantzungo ditugu denak.

Zurea da hitza, Pedro.

**Pedro Bengoetxea**: Nik hiru galdera dauzkat, batez ere gauden egoerari buruzkoak dira. Etxe tasatuak; hotelaren gaia, ea azkenean erosi den ala ez; eta zubian, ezarritako epeei jarraitzen ote ari diren edo.

Eta gero gai bat argitzea nahiko nuke. Larunbatean, prozesu parte-hartzailearen aurkezpenaren bilera amaitu zenean, epeak aurreratzeko, proiektua aurkezteko enpresa bat kontratatuko zela geratu baitzen. Zalantza sortu zaigu enpresa horrek proiektuak amaitu aurretik aurkeztuko ote dituen, hau da, urtarrilaren amaierarako prozesu parte-

## 7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

**Itziar Irizar**: El último punto del orden del día es el de ruegos y preguntas. Tal y como hemos hecho en sesiones anteriores, primero formular las peticiones o preguntas que tengáis, y a continuación respondemos a todas ellas.

Pedro, tienes la palabra.

**Pedro Bengoetxea**: Yo tengo tres preguntas que son más que nada sobre cuál es la situación en la que estamos. Las casas tasadas; el tema del hotel, si se ha comprado o no al final; y si en el puente, se siguen los plazos que estaban establecidos.

Y luego quiero una aclaración porque, el sábado, cuando terminó la reunión de la presentación del proceso participativo, se quedó que, para adelantar los plazos, se iba a contratar una empresa para la presentación del proyecto. Nos ha surgido la duda sobre si esa empresa va a presentar los proyectos antes de terminar, esto es, se supone que

hartzaileari buruzko txostena izango dugula suposatzen da, eta, nahiz eta ados gauden Europako diru-laguntzetan sartu ahal izateko epeak aurreratu behar direla, zalantza geratu zaigu enpresa horren lan zehatza zein izango ote den.

para finales de enero vamos a tener el informe sobre el proceso participativo y, si bien estamos de acuerdo que hay que adelantar los plazos para poder entrar en las subvenciones europeas, pero nos ha quedado la duda sobre cuál va a ser el trabajo concreto de esa empresa.

**Itziar Irizar:** Iñigo, zuek ba al duzue eskaera edo galderarik?

**Itziar Irizar:** ¿Iñigo, tenéis alguna pregunta o petición?

**Iñigo Cambronero:** Ez

**Iñigo Cambronero:** No

**Itziar Irizar:** Etxe tasatuen inguruan, Aritz zurea da hitza.

**Itziar Irizar:** En relación a las casas tasadas, Aritz, tienes la palabra.

**Aritz Larrañaga:** Gai honetan Jose Luisek ahalko digu lagundu. Printzipioz, hilabete honetan, 10aren inguruan, bukatu zen jendaurreko epealdia, eta oinarriak onartutzat jo dira behin betiko, eta orain, deialdia egin beharko zen, horrela da, ezta?

**Aritz Larrañaga:** En este tema En este tema nos podrá ayudar José Luis. En principio, este mes, hacia el 10, finalizó el periodo de información pública, y las bases se han dado definitivamente por aprobadas, y ahora, habría que hacer la convocatoria, ¿no es así?

**Jose Luis Salaberri:** Bai, horrela da. Orain falta dena da deialdia buletinean argitaratzea, eta prozesu guztia martxan jarri.

**Jose Luis Salaberri:** Si, así es. Ahora lo que falta es publicar la convocatoria en el boletín, y poner en marcha todo el proceso.

**Pedro Bengoetxea:** Zenbat egun egon behar da buletinean? 30 egun?

**Pedro Bengoetxea:** ¿Cuántos días tiene que estar en el boletín? ¿30?

**Jose Luis Salaberri:** Bai, buletinean argitaratzen denean zabaltzen da izena emateko 30 eguneko epea, eta gero zerrendak sailkatu beharko dira, eta prozesu guztia burutu.

**Jose Luis Salaberri:** Si, con la publicación en el boletín se abre un plazo de 30 días para apuntarse, luego habrá que clasificar las listas, y llevar a cabo todo el proceso.

**Pedro Bengoetxea:** Hori guztia aklaratu egin behar da zeren jendea horren zain dago. Egin ziren lehengo listak, baina lista horiek interesdunen kopurua edo jakiteko izan ziren.

**Pedro Bengoetxea:** Todo eso hay que aclararlo porque la gente está esperando a eso. Se hicieron unas listas antes, pero esas listas fueron para saber el número de personas interesadas.

**Aritz Larrañaga:** Deialdia egiten denean, buletinean argitaratzen denean eta izena emateko epea zabaltzen denean, hori guztia komunikatuko da.

**Aritz Larrañaga:** Cuando se haga la convocatoria, cuando se publique en el boletín y se abra el plazo de inscripción, se comunicará todo esto.

**Pedro Bengoetxea:** Argitu behar da ondo, zeren jendeak jakin behar du. Batzuk usteko dute lehen emandako izenarekin nahiko izango dela, eta hori guztia ondo aklaratu behar da.

**Pedro Bengoetxea:** Hay que aclararlo bien, porque la gente tiene que saber. Habrá quien crea que habiéndose apuntado antes será suficiente, y todo eso hay que aclararlo bien.

**Itziar Irizar:** Hotelaren kasuan, ez nago ziur zer batzordean izan zen, baina, uste dut Ogasuneko Batzordean izan zela, komentatu

**Itziar Irizar:** En el caso del hotel, no estoy segura de en qué comisión fue, creo que fue en la comisión de Hacienda, comentamos la

genuen salerosketaren aukera, baina geroztik ez dugu ezer jakin salerosketa hori gauzatu ote den ala ez.

posibilidad de la compraventa, pero desde entonces no hemos sabido nada sobre si esa compraventa se ha materializado o no.

Eta hirugarren galdeari buruz, zubiarena, bihar bertan egin behar zen bilera bat obra zuzendaritzarekin, baina, bilera horretara etorri behar zen pertsona bat PCRren emaitzaren zain dago, eta bertan behera gelditu da bilera hori, datorren astean edo egingo da. Bilera zen, hain zuzen, egutegia errepasatzeko zeren martxorako bukatzea dago aurreikusita eta ea epeak betetzeko moduan dauden aztertzeko.

Y sobre la tercera pregunta, la del puente, mañana mismo se iba a celebrar una reunión con la dirección de obra, pero, una persona que tenía que venir a esa reunión está a la espera del resultado del PCR, ya la reunión se ha suspendido, seguramente se celebrará la semana que viene. Se trataba de una reunión para repasar el calendario ya que está previsto que finalice en marzo y analizar si se pueden cumplir los plazos.

Eta, azkenik, zumardiko prozesuaren inguruan, enpresaren zeregina esaten duzunean, oinarrizko proiektua egingo duen enpresari buruz ari al zara?

Y, por último, en relación al proceso de Alameda, cuando dices el papel de la empresa, ¿te refieres a la empresa que va a realizar el proyecto básico?

**Pedro Bengoetxea:** Bai

**Pedro Bengoetxea:** Si

**Itziar Irizar:** Atzo eta gaur ireki dira lehiaketaren sobreak, enpresa bakarra aurkeztu da, eta orain begiratu behar da ea betetzen dituen ezarritako gutxieneko baldintzak.

**Itziar Irizar:** Ayer y hoy se han abierto los sobres del concurso, sólo se ha presentado una empresa, y ahora hay que comprobar si cumple las condiciones mínimas establecidas.

**Jose Luis Salaberri:** Atzo bukatu zen eskaintzak aurkezteko epea, eta, Itziarrek esan duen moduan, enpresa bakarra aurkeztu da. Atzo zabaldu zen lehen sobrea, eta dokumentazio administratiboa zuzen zegoenez, gaur zabaldu da bigarren sobrea, proposamen teknikoena., Balorazioa adituen komite batek egin behar duenez, proposamen hori komite kideei igorri zaie. Espero dugu urte bukaerarako, edo asko jota, datorren urteko hasierarako txosten hori izango dugula, eta orduan zabalduko da hirugarren sobrea, proposamen ekonomikoarena, eta horrekin esleipena egiteko prest egongo ginateke.

**Jose Luis Salaberri:** Ayer terminó el plazo para presentar ofertas y, como ha dicho Itziar, sólo se ha presentado una empresa. Ayer se abrió el primer sobre, y como la documentación administrativa era conforme, hoy se ha abierto el segundo sobre relativo a la oferta técnica. Como la valoración la tiene que realizar un comité de expertos y expertas, esa propuesta se ha remitido a las personas que forman el comité. Esperamos que para fin de año o, a más tardar, a primeros del año que viene tengamos el informe, y entonces se abrirá el tercer sobre, la propuesta económica, y con ello estaríamos listos para la adjudicación del contrato.

**Aritza Larrañaga:** Jose Luisek esandakoari gehituz, dena zuzen badago enpresa horri

**Aritz Larrañaga:** Añadiendo a lo dicho por Jose Luis, si todo está correcto se adjudicará

esleituko zaio kontratua, eta enpresa horrek oinarrizko proiektua egingo du, eta horretarako hilabete eta erdiko epea izango du. Horrela proiektu hori otsailaren amaierarako edo martxoaren hasierarako bukatuta izango dute.

el contrato a esa empresa, que elaborará el proyecto básico, para lo que tendrá un mes y medio de plazo. Así, este proyecto estará finalizado para finales de febrero o principios de marzo.

Esleipena egiten denetik eta proiektua egiten hasiko diren tarte horretan izango da partaidetza prozesuaren azken ekitaldia txosten horrekin. Itziar Gonzalez, Esther Zarrabeitia eta Saioa, arkitektoa ere ,harremanetan egongo dira enpresarekin txosten horrek, eta partaidetza prozesuak emandako guztiaren berri emateko, eta enpresak kontuan eduki beharko hori guztia aurkeztuko duen oinarrizko proiektuan.

El último acto del proceso participativo, con la presentación de ese informe tendrá lugar entre la adjudicación y el inicio de la elaboración del proyecto. Itziar González, Esther Zarrabeitia y también Saioa, la arquitecta, estarán en contacto con la empresa para informarle de todo lo aportado en el proceso participativo, que deberá ser tenido en cuenta en el proyecto base que presente.

**Itziar Irizar:** Ez daude gai gehiago eta bukatutzat emango du bilera. Eskerrik asko denoi, ondo bukatu urtea eta datorren urteko hasieran egongo gara berriz ere.

**Itziar Irizar:** No hay más temas por lo que daremos por finalizada la sesión. Muchas gracias a todos y todas, finalizar bien el año, y volveremos a estar a principios del año que viene.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 19:50ean amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar, a las 19:50 horas, finaliza el Pleno.

Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

Itziar Irizar Beristain
Jarduneko alkatea